

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Balendin Enbeita Goiria
Muxika, Bizkaia (1906-1986)

Aurkibidea

Biografia

Muxikako Usparitxa-Jauregi baserrian jaio zen Balendin Enbeita. Aita bere jaiotetxekoa zen eta ama Ibarruriko (gaur egun Muxika) Pozuaundi baserrikoa. Aitari jarraiki, txikitandik erakutsi zuen bertsolaritzarako zaletasuna. Hogeita hiru urte besterik ez zituela irabazi zuen bere lehen Bizkaiko Txapelketa, 1929an eta 36ko Gerraren ondorengo lehen bi txapelak ere beronek jantzi zituen.

Gerra garaian, Eusko Gudarostearen barnean, Bizkaiko frontean izan zen eta 1937ko abenduaren 1ean hamabi urteko espetxe zigorra eman zioten. 1941era arte kartzelan izan zen.

Bertsolari eskolen mugimendua Balendinekin batera sortu zela esan liteke, beronek eman baitzituen lehen urratsak bertsolarien eskolaratze-bidean Garriko bertso-eskola sortuz.

Baina plaza-gizona izateaz gain, idatziz ere eman zituen bertsoak. Eta bestelakorik ere paratu zuen paperetan: garaiko aldizkarietan hainbat poesia eskaini zituen eta baita Jesukristoren bizitza kontatzen duen antzerki-obra musikal bat ere.

Baserriko teilatua konpontzen ari zela erorita hil zenean, "Bizitzaren Joanean" liburuaren bigarren partea prestatzen ari zen.

Gaur egun, Bilboko Areatzako parkean bere omenezko irudia dago.

Zintak

MUX-061

- **Proiektua:** IRALeren Bizkaiera Bilduma
- **Elkarrizketatzailea(k):**
- **Data:** 1984-03-17
- **Iraupena:** 95 min
- **Euskarria:** Audio digitala
- **Kodifikatzailea:** Unamuno, Arianne
- **Emalea:** Aristondo, Iñaki

Pasarteak

1. Juan Mari Uriarteri abestutako bertsoak

- **Erref:** MUX-061/002
- **Iraupena:** 0:05:05. **Hasi:** 00:01:17. **Bukatu:** 00:06:22
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak

Laburpena:

Juan Mari Uriarte Bizkaiko gotzain laguntzaileari abestutako bertsoak kantatzen ditu.

2. Bertsolariak hizkuntza edertu eta aberasten du

- **Erref:** MUX-061/003
- **Iraupena:** 0:03:23. **Hasi:** 00:06:22. **Bukatu:** 00:09:45
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Katak » Bertsoak
- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:

Bertsolariak hizkuntza edertu eta aberastu egiten duela dio. Bertsoak idatziz egindakoan, orraztu egiten ditu; gainontzean, bertsoa garbia izan dadin ahalegintzen da. `Txirrita´ri behin erronka bota ziotela kontatzen du, errima zaileko puntua emanda, ezetz bertsoa bukatu.

3. Bertsolari ona

- **Erref:** MUX-061/004
- **Iraupena:** 0:02:55. **Hasi:** 00:09:45. **Bukatu:** 00:12:40
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:

`Txirrita´ Gipuzkoan bertsolari onena izan dela uste du. Bertsolaririk onena zein den esatea zaila dela dio. Gaiaren arabera, bertso ona egiteko aukerak zabalagoak edo murrizagoak izan daitezkeela dio. Hainbat bertsolariren dohainak aipatzen ditu.

4. Bertsolariak negarrez

- **Erref:** MUX-061/006
- **Iraupena:** 0:02:08. **Hasi:** 00:15:06. **Bukatu:** 00:17:14
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:

Bertsolariek negarra barruan sentitzen dutela dio. Bertsotan negar egin izan dutela kontatzen du, Erramun eta Mattin adibidetzat jarrita.

5. Kepa Enbeita `Urretxindorra´

- **Erref:** MUX-061/008
- **Iraupena:** 0:02:34. **Hasi:** 00:19:05. **Bukatu:** 00:21:39
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:

Bere aitari, Kepa Enbeitari, `Urretxindorra´ gaitzizena zergatik ipini zioten azaltzen du. Kantaera ederra zeukala dio. Bere semeen kantaera deskribatzen du. Segundo Olaeta aipatzen du.

6. Domingo Iturrateri jarritako bertsoak

- **Erref:** MUX-061/012
- **Iraupena:** 0:07:03. **Hasi:** 00:23:45. **Bukatu:** 00:30:48
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak
- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:

Liburu berrirako bildutako bertsoak ditu eskuetan eta azalpenak ematen ditu. Domingo Iturrate Erroman dohatsu egin zutenean, han bertan abestutako bertsoak kantatzen ditu.

7. Bertsolaritza euskararentzat beharrezko

- **Erref:** MUX-061/015
- **Iraupena:** 0:05:15. **Hasi:** 00:32:43. **Bukatu:** 00:37:58
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua
- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:

Herrietako berbetak ahoskeraz desberdinak direla dio, baina ez dagoela hainbesteko alderik berez. Bertsolaritza herriarentzat eta euskararentzat beharrezkoa dela dio. Euskara batuaren eta euskalkien osagarritasuna azaltzen du. Inguruko euskalkien adibideak ematen ditu.

8. Aita eta aitita bertsolari

- **Erref:** MUX-061/018
- **Iraupena:** 0:01:26. **Hasi:** 00:44:12. **Bukatu:** 00:45:38
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:

Aitarekin baino gehiago aitarekin egiten zuen bertsotan. Aita Gipuzkoan Bizkaian baino gehiago ibiltzen zela bertsotan esaten du.

9. Francisco Losada kartzelakideari gertatutakoa

- **Erref:** MUX-061/019
- **Iraupena:** 0:06:50. **Hasi:** 00:45:38. **Bukatu:** 00:52:28
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- Aisia » Kultura » Idaztea

Laburpena:

Aurretik argitaratu ezin izan zituenekin osatu du liburu berria, gerrako eta kartzelako bizipenak tarteko. Francisco Losada izeneko kartzelakide bati buruzkoak kontatzen ditu.

10. `Urretxindorra´ kantuz Lurdesen

- **Erref:** MUX-061/020
- **Iraupena:** 0:02:35. **Hasi:** 00:52:28. **Bukatu:** 00:55:03
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:

Bere azken liburuaren kontuak aipatzen ditu. Bere aita, Kepa Enbeita `Urretxindorra´, Lurdesera joan zen beste euskaldun batzuekin batera. Apezpikuetako batek bertsotan eginarazi zion, gora igota.

11. `Urretxindorra´ri ahotsa kaltetu zitzaionekoa

- **Erref:** MUX-061/021
- **Iraupena:** 0:00:58. **Hasi:** 00:55:03. **Bukatu:** 00:56:01
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:

Bere aitak, Kepa Enbeita `Urretxindorra´k, oso ahots ederra zeukala dio. Gripe gogor baten ondoren, ez zuen ahots hura berreskuratu ahal izan.

12. Xalbador, bertsolaririk onenetakoa

- **Erref:** MUX-061/022
- **Iraupena:** 0:02:54. **Hasi:** 00:56:01. **Bukatu:** 00:58:55
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:

Anekdotak bat kontatzen du, bere omenaldiari loturikoa. Argazki bati buruzko aipamena egiten du, zein bertsolari falta diren azalduz. Xalbador bertsolaririk onenetakoa izan dela uste du. Zelan hil zen kontatzen du.

13. Bertsolaria dabilen lekuan, euskara dabil

- **Erref:** MUX-061/025
- **Iraupena:** 0:02:32. **Hasi:** 01:03:04. **Bukatu:** 01:05:36
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:

Lau seme fraidetarako joan ziren, baina ezkondu egin ziren. Bertsolaritzak euskara indartu egin duela eta hala egingo duela uste du, bertsolaria dabilen lekuan euskara dabilelako.

14. Bizkaiko lehen bertso eskola

- **Erref:** MUX-061/026
- **Iraupena:** 0:03:25. **Hasi:** 01:05:36. **Bukatu:** 01:09:01
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:

Bizkaian lehenengo bertso eskolako sortzailea izan zen. 1958an eta 1959an Bizkaiko bertsolari txapelduna izan zen. Orduan erabaki zuen eskola egitea. Zelan hasi ziren kontatzen du.

15. "Peru Dubakok" bertso-sortako lehenengoa

- **Erref:** MUX-061/027
- **Iraupena:** 0:00:47. **Hasi:** 01:09:01. **Bukatu:** 01:09:48
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak

Laburpena:

Lekeitioko apaiz batek egindako bertso-sortako lehenengoa abesten du.

16. Jesusen Bihotza antzezlan

- **Erref:** MUX-061/028
- **Iraupena:** 0:05:34. **Hasi:** 01:09:48. **Bukatu:** 01:15:22
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia
- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:

Jesusen Bihotza izeneko antzezlan egin zuen Balendinek, dena bertsoz egina. Antzeztokiko zehaztapenak eta antzeztanaren ibilbidea kontatzen ditu. Antzeztanaren bideo grabaketa ezabatu egin zioten.

17. Gabon-kanten lehiaketa

- **Erref:** MUX-061/029
- **Iraupena:** 0:01:46. **Hasi:** 01:15:22. **Bukatu:** 01:17:08
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Gabon kantak
- Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Gabonak

Laburpena:

<p>Gabon-kanten lehiaketa batean parte hartu zuen Gernikan, beste lau lagunekin batera. Gaztelerazko kanta baten itzulpena errezitatzen du.</p>

18. Ariatzan beti kantuzaleatasuna

- **Erref:** MUX-061/030
- **Iraupena:** 0:01:46. **Hasi:** 01:17:08. **Bukatu:** 01:18:54
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:

Bere aurreko bertsolariak aipatzen ditu, Ariatzakoak. Beti kanturako eta antolakuntzarako prestutasuna egon izan dela dio.

19. Antzina euskaldunak bertsoz

- **Erref:** MUX-061/033
- **Iraupena:** 0:01:19. **Hasi:** 01:24:49. **Bukatu:** 01:26:08
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:

Antzina euskaldunek bertsoz jarduten omen zuten, gauzak gogoan hartzeko, Barandiarani entzuna dionez.

20. Andre zaharrak euskaraz Aragoi

- **Erref:** MUX-061/036
- **Iraupena:** 0:02:48. **Hasi:** 01:29:11. **Bukatu:** 01:31:59
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Xabier Peña aipatzen du, eta Sebe ere bai. Aragoi andre nagusiak kartetan euskaraz entzun zituztela eta. Euskara Kataluniaraino zabaldua zegoela kontatzen du.

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com